

## Nor

UDABERRIAREN EKINA hemen da. Lantegi ederra hartzen du, urtea joan eta urtea etorri, gure izerdiak mugiarazten. Gu, bai gu: landareak eta geroni. Idatzi bati buruzko iritzia jakin nahi nuen eta hor bidali diot adiskide bati. Bueltan, hor datozkit bere iritzi egoiak eta onak, baina ohar batez lagundurik: landareak “nor” gisara tratatzen ditudala eta, ezetz, landareak “zer” direla.

Landareak nor ez direla dioenak berak jakingo du zertan arden, baina Urkijo baino puztuago dabil. Ikuspegi hori ez da ez troglodita. Aurreragokoa! Landareak gure zerbitzura, gure gurariak asetzeko, ustezko jainkoren batek eginak direla buruan duenak, seminario kiratsa duen heziketaren ondorio zikiratzaileak ez dituela gainditu besterik ez du azaltzen.

Aldizkari honetako lagunekin elkarlanean, laster landareak ikusi-



TRIVIAKING-CC BY SA

**Sagarrondoak maiatzean erabakiko du datorren urtean sagarra eman edo ez; nola arraio erabakia hartu, jaso eta, gainera, hurrengo urtean bete?**

ko dituen liburu bat erditzeko asmotan gabilta. *Bizi Baratztea; garaian garaikoa garai;* eman eta hartu izena izango du eta bertako lehenengo esaldiak honela dio: “Ezer-tan hasi aurretik, ohar bat: landareak badira nor, badirenez, eta, beraz, hemen halaxe tratatuko ditugu”.

Gure garuna baino zaharragoa da landareen jakinduria. Nola kudeatzen duten ez dakigu eta

horrek erretzen gaitu eta hankapean hartzera bultzatzen. Azpian, maizegi darabilgun uraren bitsa zapuztuko da, noizbait.

Sagarrondoak maiatzean erabakiko du datorren urtean sagarra eman edo ez; nola arraio erabakia hartu, jaso eta, gainera, hurrengo urtean bete? Tokitan gaude gu! Erabakiak hartzen, jasotzen eta urtebetera betetzen...

Iaz ereindako sagar haziak ez ziren ernatu. Epelean igaroko zuten negua eta ezin udaberri-rako kokka sentitu. Zer

senti dezake hazi ziztrin batek? Nola? Ba, iaz lo geratu eta aurtengo negua lurpean pasa ondoren ederki ernatzen ari dira. Tokitan...

Tokitan ez, berbertan dugu sapelarra (*Stellaria media*), baratzeko lur aberatsen adierazle garbia. Oraintxe mastra mardula erakusten. Hura ihartzen hasten denean ekin baratztea udaberri-tzeari. Esaerak hala dio. Jakin eta adierazi. ■

# 16-15-8,5

**Ongarriak ezagutzeko**, nazioarteko nomenklaturak hiru zenbakirekin azaltzera behartzen du. Lehenengoak nitrogeno proportzioa adierazten du, bigarrenak fosforoarena eta potasioarena hirugarrenak. Simaurretan oilo zirinetik datorrena da aberatsena: %16 N, %15 P eta %8,5 K. Hori izugarria da. Hurrengo aberatsena arkorotza da: 8,3-2,3-6,7. Eta hori gutxi balitz kaltzio proportzioa ikaragarria du oilo-kakak, %24.

Simaurtze sasoi aurreratua da, baina beti berandu denez, ahal duzuean baratztea, soloa, fruitu arboladia edo lorategia simaurtu. Hurrengo urterako, eguberri inguruko txoroaldiarekin batera lan horri ekin behar diozula gogoratu. ■



Landareei buruzko galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua [landareak@argia.eus](mailto:landareak@argia.eus) helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.



**Zumargain**  
nekazaletxea

© 671 334 101 · Elizmendi auzoa · 20159 Asteasu